

IRITZIA

Hastapen bat

Laura Martínez de Guereñu

Arkitekto doktorea eta
IE University-ko irakaslea



Jasotze-data: 2015-04-22

Onarpen-data: 2015-04-27

+++++


Karrera Amaierako Proiektuak ezaugarri berezi bat azaltzen du, Espainiako Goi Eskola Teknikoetan tradizionalki ulertu izan dugun moduan. Alde batetik, ikasleak, karreraren zehar ikasitako ezagupenak modu mardul batean integratu behar dituen lehenengo proiektua da. Arrazoi metodologiko huts batengatik, ikasketak hainbat ezagupen-eremutan zatiturik baitaude. Bestalde, ikasleak bere ibilbide profesionala hasi baino lehen, irakasleen tutoretzarekin kontatuko duen azkeneko proiektua da. Berezitasun horrek KAPa erronka zail bihurtzen du. Eta nola ez, askotan berezitasun berberak zorabio bat ekoizti izan du, KAPa denboran zehar halabeharrez luzatuz.

Zuzenagoa izango litzateke KAPa helmugatatzat ez hartzea, hasieratatzat baizik. Horrela ulertuz gero, KAPa ez litzateke bakarrik izango ikasleak proiektu bat integralki garatzen duen lehendabiziko oportunitatea, baizik eta karreraren zehar ikasitako tresna guztien limiteak balioztatzeko aukera ezin hobia. KAPean zehar, ikasleak hasieratik parte hartzen badu garatu behar den aktibitate mota eta proiektuaren kokapena erabakitzen –eta aldi berean akzio horren inplikazio ekonomikoak eta eragin soziala aztertzen–, bitzta profesionalera askoz ere tresna gehiagorekin iritsiko da. Horretarako, KAPean murgildu ordurako, ikasleak merkatuak eskatu behar dion ikertzaile- eta ekintzaile-jarrera jakinaren gainean egon beharko luke; oportunitate berriak aurkitu beharko baititu edozein esku-hartze eskalatan.

Ideialki, KAPak proiektuari dimentsio ekintzaile bat emateko lehenengo aukera izan beharko luke. Arkitekturak, espazio bakar baten ekoizle bat bezala ulertzen denean, leku

batekiko eragin ekonomiko mugatua du. Aldiz, arkitekturak, aktibitate desberdinetarako sekuentzia desberdinak ekoizten dituenean, edo beste modu batean esana, proiektu sail bat elkarrekin harremanetan jartzen duenean, bere gaitasun hori esponentzialki biderkatzen du, aktibitate ekonomiko batekiko dimentsio instrumental bat lortzen duelako. Horregatik, KAPa, unibertsitate-eremuan garatzen den proiektu gisa –eta promozio desberdinetako ikasleek egiten duten ibilbide gisa– ikusten bada, aukera onena izan daiteke proiektua erantzun singular gisa ez ikusteko, baizik eta kolektiboki erantzun daitekeen arazo baten parte gisa ulertzeko.

2012. urtean, orain dela hiru ikasturte akademiko, IE University-ko Arkitektura Goi Eskolak bere Karrera Amaierako Proiektuak nolakoa izan behar zuen planteatu zuenean, bazekien Ameriketako *Thesis Projects*-en antzera moldatu nahi zuela. Sei hileko batean kontzentratuko zuen, KAParen saiakuntza ahal zen intentsitate handiezez garatuko zela ziurtatzeko, eta haren garapena denboran zehar mugagabe luzatzeko aukerarik ez uzteko. Aldi berean, eskolak arkitekturaren produkzioa osatzen duten eragileen konplexutasuna azaldu nahi zuen, eta, horregatik, arlo profesionalaren kolaborazio-ingurune antzeko bat erraztu zien ikasleei. Irakasle-ikastun dinamika klasikoa luzatzeak ez zuela zentzurik erabaki zuen, eta horregatik, irakasle-klaustroa zenbait alderditara irekitzea beharrezkotzat hartu zuen. KAPeko zuzendariez gain, proiektuaren garapenaren zenbait momentutan parte hartuko zuen talde bat osatu zen. Modu horretan, ikaslea hainbat *inputez* baliatuko lirateke eta KAParen garapenean zehar zenbait digresio hartuko lituzke.



Irudia ~ Ree Morton, *Lerro Sailak* [Line Series], 1974. Urmargo, graffito eta kolorezko argizaria, larrutx-papera, 55,7 x 76,3 cm. Harvard Art Museums/Fogg Museum, Margaret Fisher Fund. © 1974 Estate of Ree Morton

Gai aberats eta eraberritzaile baten arloan ikerketa-lerro berri bat sustatzea erabaki zen, bertan ikasle-promozio bakoitzaren emaitza kolektiboak batu ahal izateko. Modu horretan, proiektuak ez lirateke ikasturte bakoitzaren planteamendura loturik egongo soilik, baizik eta proposamen indibidual bakoitzaren emaitzak ikerketaren eremuan neurtuko lirateke eta efektuak denboran zehar biderkatuko lirateke. Horrela, turismoa bere zabaltasun handian aztertzea erabaki zen. Aktibitate ekonomiko hori lurraldearen erabileran emankorrenetako bat izanik eta Espainian sakonki errotuta egonik, arkitekturak ez ditu erantzun onenak proposatu beti. Zergatik gertatu ote da horrela?

Turismoak, kasu gehienetan, ezagutu daitezkeen irudiekin lotzen diren formula sinpleak eskaini ditu soilik, horrelako irudi bereizgarriek opor-egonaldi bat asaldatu ezin dezaketelakoan. Jose Miguel Iribasek hainbat alditan errepikatu zuen bezala, turismoa denboraren industria balitz bezala —eta ez espazioaren industria balitz bezala— hausnartu beharko litzateke. Turistak erakartzen dituen ez baita espazioen handitasun zehatz bat, baizik eta denboran zehar esperimenta daitezkeen aktibitate alternatiboen segida bat. Hausnarketa horretan oinarrituta, «arkitektura-turismo» binomioa bateratu nahi baldin bada, denboran zehar gertatzen den esperimentazioa —eta espazio desberdinen arteko erlazioa— da benetan garrantzia duena. Beraz, arkitekturak turismoa bezalako aktibitate ekonomiko baten sorkuntzan laguntzeko, testuinguru bati aldibereko aktibitate sail batzuk eman beharko dizkio. Turismoak, lurralde zehatz baten eremuan, arkitekturak duen azpiegitura-izaera esploratu beharko du.

Hausnarketa horren ondoren, KAPeko irakasleek *Architecture&Tourism* ikerketa-lerroa osatu zuten, etorriko ziren ikasturte akademikoetan galdera hauei erantzuna emateko ideiarekin: Arkitekturak ba al dauka gaitasunik turismoa erakar dezaketen aktibitateak sortzeko? Eta

aktibitate horiek ahalmenik izango al dute lurralde bat ekonomikoki garatzeko eta oportunitate berrien paisaia berrira transformatzeko?

KAParen arloan lanean asteko, eragin-eremua mugatu egin zen, eta, horretarako, eskala handiko jarduera-esparru bat antolatu zen: *Iberia Total*. Horra hor, Iberiako penintsula osoa helmuga turistiko bateratu bat bezala ulertzen duen eremu bat, eragin globaleko potentzialarekin. Modu horretan, lurraldeka artikulatu zitekeen, eta helmuga berezi bat gaudituz zezaketen turismo-sare bat imajinatu nahi izan zen. Horrela, KAPeko eremuan garatutako proiektuek baldintza bikoitz bati emango liokete erantzuna: babesten dituen sareko partaide izango lirateke, eta, bide batez, espezifiko dena aintzat hartuko lukete ere. Planteamendu horrekin, ikasleek turismoarekin lotuta egongo zen aktibitate bat definituko eta garatuko lukete; jardueraren kokagunea aukeratuko lukete eta beren proiektu indibidualak programa handiago (kolektibo) batekin lotuko lituzkete, Espainiako alde desberdinak birsortzeko.

2012-13. ikasturterako proposatu zen jokalekua AP-66 autobidearen luzetara iragaten duen eta Leonetik Kantauri Itsasora doan korridorea izan zen (Astorga eta Mérida batzen zituen Ruta de la Plata bide historikoaren zati bat izanik). Inguru horretan, interes historiko-artistiko handia duten ondasunen kontzentrazio altua dago, baita ondare industrial itzela ere, eta itsasertz, bailara, eta mendiz osatutako ondare natural bat, Europako Mendiak parke nazionala barne. Planteamendua hurrengoa izan zen: metropolitarra denak, landatarra denak, azpiegiturak osatzen dituenak, ondareak osatzen dituenak eta naturala denak arkitekturaren bidez lurralde-mailako eskaintza turistiko bat osatzeko gaitasunik zuten aztertzea.

2013-14. ikasturteak Bidasoa ibaiaren ingurunea aztertu zuen, tradizionalki zehaztapen geopolitikoetan oportunitate-arlo bat bezala ulertu dena, Euskal Herriko Ipar eta Hegoaldean. Azkeneko hamarkadetan lurraldea ulertzeko

egin den desplazamenduak, arlo politiko-administratibotik ekonomiko-azpiegiturazko arlora, ingurune hori beste aukera zabalago batzuetara inkorporatzen duen parte bat bezala ulertzea posible egin du. Turismo-eskaintza tradizionala heda zezaketen aktibitate berriak Europako eskualde berri batean aurkitzea izan zen planteamendua, non Bidasoa, bi periferiaren elkargune gisa ikusi ordez, Donostia eta Baiona arteko transnazional ekonomiko *continuum* gisa ikusiko litzatekeen.

Hemen argitaratzen diren lau proiektuek bi lehenengo kurtso hauen emaitzak erakusten dituzte. «Antzeztoki Debekatuak» eta « Haritik tira» *Iberia Total 1.0* barnean garatu ziren, eta «1.785m [mugaz bestaldeko lehiaketagunea]» eta «Zubiak - Atea, Hendaia Unibertsitate Zona Frankoa», berriz, *Iberia Total 2.0*-ren atalak dira.

2014-15. ikasturterako proposatu zen jokalekua, *Iberia Total 3.0* osatuko duena, dentsitate handiko testuinguru bat da: Madrid-Castellana. Tradizionalki lehen mailako ardatz ekonomiko eta soziala dela ulertu bada ere, izugarrizko indarra duten eskaintza turistiko ez-konbentzionalak bertan sendotzea izan zen objektiboa. Horien artean, Santiago Bernabeu futbol-zelaira joaten diren milaka bisitarik osatzen duten kirol-turismoa, Orense eta Serrano kaleetan edota El Corte Inglés inguruneko luxuzko galerietan kontzentratzen den erosketa-turismoa, edo Colón Plazan kontzentratzen diren manifestaldien turismoa daude. Programa eraberritzaileak hiriburuko turismoari dimentsio berri bat eskaintzeko gai izango dira.

Iberia Total arkitektura-turismo binomioan egindako hiru segidako gerturatzeek berezko identitatea duten oportunitate-ingurune berriak osa daitezkeela baieztatu dute, non arkitektura existitzen den paisaiarekin bizi daitekeen eta leku bat ekonomikoki aktibatzeke gaitasuna izan dezakeen. Ruta de la Plata, Bidasoa, Castellana... etorriko diren beste zenbait testuingururen artean hiru lehenengoak besterik ez dira. Proiektu horiek konstelazio bat osatu dute eta Espainiako eskaintza turistikoa birformulatzeko prozesuan parte hartu dute, bizitza profesionalaren hastapen bat ahalbidetuz.

* IE University-ko KAParen klaustroa, eta aldi berean KAParen epaimahaia, osatu duten irakasleak:

Zuzendariak: David Goodman, Pablo Oriol, Fernando Rodríguez, Lina Toro.

Irteera Workshop-aren irakasleak: Izaskun Chinchilla, Lina Choi eta Tarik Oualalou (KILO Architects), Mónica García, José María García del Monte, Laura Martínez de Guereñu.

Praktika teknikoaren irakasleak: Rafael Iñiguez de Onzoño, Manuel Pérez Romero.

Areagotze Workshop-aren irakasleak: Andrew Varela, Antonio Vaillo.

Kritiko gonbidatuak: Izaskun Chinchilla, Juan Elvira, Pedro Iglesias.

Uncharted. The New Landscapes of Tourism. IE University. Undergraduate Architecture Degree, Actar Publishers/ IE University, 2014, *Iberia Total*-en proiektuak batzen dituen lehenengo argitalpena da eta bertan bost oportunitate-paisaia desberdin eratu dira: produktiboak, urbanoak, muturrekoak, industrialak, itzulgarriak.